



## **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

2022/05/11n EGINDAKO EZ OHIKO UDALBATZA.

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 11/05/2022.

### BERTARATUAK- ASISTENTES

#### Alkate-Udalburua

Jose Ramon Zubizarreta Alegria

#### Zinegotziak

Purificación Regidor VArela  
Antonio Regaño Sájeras  
Josu Ezkurdia Santamaría  
Ana Belén de Castro Ramos  
Nestor Arana Arexolaleiba  
Dorleta Sologaistoa Aguiriano  
Leire San Vicente Carrillo

#### Idazkari Akzidentalak

MARIA PILAR BIAIN CORTABARRIA

Eskoriatzan, 2022ko maiatzaren 11n, arratsaldeko 18:00etan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Ez Ohiko Udalbatza, gai zerrrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Maite Uribe Beristain, Eluska Irazu Henández eta Ander Errarte del Pozo.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 11 de mayo de 2022, en el salón de plenos de la Casa Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten Maite Uribe Beristain, Eluska Irazu Henández y Ander Errarte del Pozo

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAACQ517.ycMr>

**2022/05/11  
Ez Ohiko Udalbatza  
Pleno Extraordinaria**

## **1.- AGENDA 2030- “HERRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK”: IKASTETXEEEN PROPOSAMENAK.**

Alkateak ongietorria eman die herriko ikastetxeetako ikasleei. Bideo emanaldi bat erakutsi dute. Ikasleek dokumentu bat irakurri dute, Agenda 2030 dela eta Eskoriatzako Udalari zenbait proposamen aurkezteko. Egindako proposamenak akta honen I. eranskinean jasota daude.

Bideoa amaituta, honako hauek hitz egin dute:

Alkateak lan interesgarria dela adierazi du, eta zenbait gauza eginak edo erdibidean daudela: txorrotak, adibidez, aldatzen ari dira udal eraikinetan, eta, ondoren, herriko iturrietan aldatzen jarraitzeko asmoa dago. 4. mailakoei esan die baserritarren batek nahi izanez gero, oraindik lekua dagoela ostiraleko azokan postua jartzeko. Zuhaitzak ez mozteko: gaixorik zeudenak edo jausteko arriskuan daudenak bota dira. Ortuen programa: baditugu jubilatuentzat, sobran daude, beraz beste edonork nahiko balu, udaletxeen eskatu behar du.

Baserritarrei laguntzak ematearena lantzen ari gara, herrian gazte bat hasi da artzain Aldundiaren, Jaurlaritzaren eta Udalaren dirulaguntzaz. DBH3 mailakoei: ongarri naturalari dagokionean, parke eta lorategien mantentzen-lanetarako deialdia ateratzen denean, adibidez, baldintza bat izaten da ongarri naturalak erabili beharra. Espezie inbaditzailerik ez da landatzen, eta zaila da horiek kentzea. Herriko merkataritza defendatzeko bonuak atera direla ere adierazi du, eta baita Foru Aldundiak programa bat martxan duela ere baserritarrei laguntzak emateko landareak landatzeko. Guztien ekarpenak oso onak izan direla adierazi du, eta esker onak emanez bukatu du.

## **2.- ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO GIZA BALIABIDEEN ARRAZIONALIZAZIO PROGRAMA, 2022KO LANPOSTU ZERRENDAREN ALDAKETA ETA ZENBAIT LANPOSTUREN HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK ONARTZEA.**

ESKORIATZAKO UDALAREN ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMA ONARTZEKO PROPOSAMENAREN proiektua aztertu da.

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuz onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 69. artikuluaren arabera, Herri Administrazioetako giza baliabideen planifikazioak helburu izango du, batetik, zerbitzua ematerakoan eraginkortasuna lortzea, eta, bestetik, erabilgarri dauden baliabide ekonomikoak kudeatzerakoan eragimenez jardutea. Horretarako, langile-kopurua egokitzea behar da, langileak hobeto banatu, ondo prestatu eta lanbide sustapena eta mugigarritasuna eskaini.

69.2. artikuluak aukera ematen die administrazio publikoek beren giza baliabideak antolatzeko planak onartzeko, bertan jasotzen diren neurri batzuk barne hartuta.

Giza Balia bideak Antolatzeko Plana langileen ordezkariekin egindako negoziazioaren emaitza izan behar da, Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearren testu bateginaren 37.1 artikuluari jarraiki.

Negoziazio-mahai orokorra deitura, akordioa lortu da sindikatuetako ordezkariekin.

Onartzea proposatzen den programak zuzenean eragiten dien langile guztiei entzunaldia eman zaie, eta haien planteatutako zalantzak eta gaiak argitu dira.

Udal honetako Euskara zerbitzuak egindako txostena eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Sailburuordetzak egindako txostena ere ikusi dira.

Horiek horrela, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Eskoriatzako UDALAREN ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO GIZA BALIABIDEEN ARRAZIONALIZAZIO PROGRAMA onartzea. Programa hori behar bezala izapideztuta dago eta administrazio-espedientean jasota.

**BIGARRENA:** Onartutako programarekin bat etorri, Eskoriatzako Udalak 2022rako dituen lanpostuen zerrenda aldatzea, 1. eranskinean ageri den moduan. Aldaketak honako hauek dira:

1.- Hurrengo lanpostuen izena aldatzea eta lanpostuak gaur egun betetzen dituztenen egiturazko funtziok egokitzea:

- "Turismoko kudeatzaile-museoko kudeatzaile ekonomiko-administratibo" lanpostuari "toki-garapeneko teknikari" deituko zaio, eta haren funtziok onartutako arrazionalizazio-planaren II. eranskineko deskribapen-fitxan jasotakoak dira.
- "Museoko teknikari" lanpostuari "ingurumen garapeneko teknikari" deituko zaio, eta haren funtziok onartutako arrazionalizazio-planaren II. eranskineko deskribapen-fitxan jasotakoak dira.

2.- "GIZARTE LANGILEA 2" lanpostua sortzea. Lanpostu horren deskribapena, funtziok eta balorazioa 1. GIZARTE LANGILEAREN berberak izango dira.

**HIRUGARRENA.-** Lanpostu berrirako eta egokitutako lanpostu bietarako hizkuntz eskakizunak onartzea Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 97.5 artikulan eta Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzeko 86/1996 Dekretuko 23. artikulan ezarritakoa betez.

LANPOSTUA	HIZKUNTZA ESKAKIZUNA	DERRIGORTASUN DATA
GIZARTE LANGILEA 2.	3	2022/05/11
TOKI-GARAPENEKO TEKNIKARIA	3	2012/12/20
INGURUMEN GARAPENEKO TEKNIKARIA	4	2012/12/20

2022/05/11  
Ez Ohiko Udalbatza  
Pleno Extraordinaria

**LAUGARRENA.-** Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udal honetako iragarki oholean eta webgunean argitaratzea.

***INTERVENCIONES HABIDAS ANTES DE LA VOTACION:***

Alkatea: aurrez Ogasun eta Pertsonal batzordetik pasatutako gaia da, kontrako boto batekin eta beste guztiak alde bozkatuta.

Nestor Arana: guk batzordean kontrako botoa eman genuen, baina, azterketa sakonagoa eginda, baiezkoa ematea erabaki dugu, kontra egin genuen arduratuta geundelako Luis Ezeiza eta museoko lanpostu horrekin, desagertzeko bidean dagoelako. Ikusita lanpostu horrek kanpoko zenbat ikasle dakarren museora, eta museoa eta hezkuntza lotzen dituela, museoa didaktifikatzera zuzendua dagoela ere esan daiteke. Gainera, hainbat altxor ditugu. Aste bukaera honetan errota eguna ospatu da, potentzial bat dago, eta lanpostu hori hezkuntza aldetik ezezik kultura aldetik ere bultzatzea nahi dugu. Errotarenak esanahi bat du, energia modu naturalean erabili izanaren adibide bat da. Potentzial bat dago eta gehiago landu beharko litzateke, badago zereginik. Eskoriatza herri txiki bat da. Lanpostu horrekin arduratuta gaude, eta ea bultzatu ahal den lanpostu hori Luis Ezeizarekin (Hezkuntzarekin) eta kulturarekin, besteak beste, gaurkoa bezalako ekitaldi gehiago egiteko, eta herritarra plenora hurbiltzeko, eta hor bidelagun izango gaituzue.

Alkateak: hemen Eskoriatzako langileen lanpostuak planteatzen dira, eta zu ari zara hezkuntza sailak liberatzen duen irakasle bati buruz. Bi gauza ezberdin. Hezkuntza sailak museoaren proiektu pedagogikoa bultzatzeko sortu zuen lanpostu hori. Gertatzen da beste programa bat ere badela, Agenda 2030, eta horrek erakartzen duela jendea, eta museokoak ez hainbeste. Kanpotik datozen ikastetxeei erantzuteko sortutakoa da, eremuak bereiztea garrantzitsua da. Hezkuntza sailaren programazioan eta autonomian ezin gara sartu, egin dezakegun gauza bakarra orain arte egin duguna da, lanpostu hori aldarrikatzea, baina ezin dugu ezer gehiago egin. Eskertzekoa da kezka, Luis Ezeizak badaki lanpostua desagertzear dagoela, eta lortu zen urte baterako lanaldi osorako izatea eta beste urte baterako lanaldi erdirako. Ez dakit, hezkuntzaz hitz egin duzu, eta hizkuntzaz nahi zenuen.

Nestor Arana: ezberdintasun horiei buruz ez dago zalantzarik, eta eskertzen dugu jakitea lanpostu hori mantentzeko ahaleginak egingo dituzuela. Bide lagun izango gaituzue, eskerrik asko.

Alkateak hartu du hitza eta aldi baterako langileekin okupaturik dauden egiturazko lanpostuei dagokienean Eskoriatzan 7 lanpostu identifikatu direla adierazi du, non 2 lanpostu lehiaketa oposaketa sistema bidez hornituko diren eta beste bost lehiaketa bidez. Lanpostuen lan eskaintza publikoa ekainaren 1a baino lehen argitaratu behar dela adierazi du. Ondoren, 2. fase bat etorriko da, oinarriak idaztearena hain zuzen.

Alkateak azpimarratu du 7 lanpostuetako langileekin eta langileen ordezkariekin adostua izan dela.

**3.- KREDITUAK ALDATZEKO 14/2022 ESPEDIENTEA.**

Kredituak aldatzeko 14. expedientea irakurri da. Kreditu aldaketa hori kreditu gehigarri bidez egingo da eta eragina du Udal honetako aurrekontuan.

**2022/05/11**  
**Ez Ohiko Udalbatza**  
Pleno Extraordinaria

Idazkari-kontuhartzaleak egindako txostenetan irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudia eragotzen zaiola, hain zuen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Idazkaritza-kontuhartzaietako txostenetan ikusita, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamena bototara jarri da, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** UDAL honetan indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko 14. espedientea onartzea, egindako proposamenaren eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera:

Gastuen partida	I. Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0600.227.337.60.20 2022	GAZTELEKUAREN KONTRATA	53.527,47	3.500,00	57.027,47
1 0600.227.337.20.21 2022	LUDOTEKA-UDALEKU IREKIAK ZERBITZUA	74.836,81	3.700,00	78.536,81
1 0100.211.933.00.01 2022	MANTENIMENDUA:ETXEAK- LOKALAK	8.000,00	7.500,00	15.500,00
1 0400.481.341.90.01 2022	DIRU LAGUNTZA:ESKO MOTOR ELKARTEA	0,00	2.000,00	2.000,00
<b>GUZTIRA</b>		136.364,28	16.700,00	153.064,28

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0200.870.000.00.01 2022	DIRUZAINTZAKO GERAKINA:GASTU OROKORRETARAKO	16.700,00

**2022/05/11**  
**Ez Ohiko Udalbatza**  
 Pleno Extraordinaria

<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>	<b>16.700,00</b>
<b>KODEEN AZALPENA</b>	

**Bigarrena.**- Jendaurrean jartzea hamabost egunez nahi duenak erreklamazioak aurkez ditzan. Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betiko bihurtuko da, eta expediente honi Aurrekontu Orokorra onartzeko ezarritako gainontzeko tramite berak egin beharko zaizkio.

**4.- UDAL HONEN BETEBEHARRAK ORDAINTZEKO AURREIKUSITAKO EPEAK BETETZEARI BURUZKO HIRUHILEKO TXOSTENA (merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua).**

Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoa betez, Udalak obligazioak ordaintzeko hartutako epeak 2022ko lehen hiruhilekoan betetzeari buruz diruzaintzak egindako txostenaren berri eman zaio Udalbatzarrari. Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 8 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

#### **5.- DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN 3/2022 ALDAKETA.**

Udalbatzarrak, 2019ko abenduaren 17an egindako bilkuran, 2020-2023 dirulaguntzen plan estrategikoa onartu zuen.

Plana onartuta, komenigarria ikusi da planaren 2022-eranskinean jasotako aurreikuspenetako batzuk aldatzea eremu horretako Ierro estrategikoa zabaltzeko dirulaguntza programa bat gehiago gehituta.

Aldaketa hori honako hau da:

A.- “2. LERRO ESTRATEGIKOAN: KIROL SUSTAPENA” “ESKORIATZAKO I. RALLYSPRINTA” PROGRAMA SORTZEA herrian kirola sustatzeko, eta jarduera honekin beste kirol mota bat erakutsiz herritarrei.

Aurrez esandako guztia kontuan izanik, Kultura eta Kirola batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**2022/05/11**  
**Ez Ohiko Udalbatza**  
 Pleno Extraordinaria

**LEHENENGOA.-** “2. LERRO ESTRATEGIKOAN: KIROL SUSTAPENA” “ESKORIATZAKO I. RALLYSPRINTA” PROGRAMA SORTZEA.

- HARTZAILEAK: ESKOMOTOR ELKARTEA
- HELBURUA: ESKORIATZAKO I. RALLYSPRINTA
- LORTU GURA DENA: herritarrei beste kirol mota bat erakusteko jarduera sustatzea.
- DIRULAGUNTZA MOTA: zuzena
- 2022ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 2.000- euro.
- FINANTZIAZIOA: kreditu aldaketarako 14/2022 espedientea, tramitatzen: 0400.481.341.90.01

**Eta beste gairik ez dagoenez, 18:40an amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkaria Akzidentalak, egiaztatzen dut.**

## ERANSKINA

ESKORIATZAKO UDALARI

PROPOSAMENAK



2021-2022 ikasturtea

Hiri eta komunitate jasangarriak

Arratsalde on denoi:

Aurten, Eskolako Agenda 2030 programaren baitan, Eskoriatzako ikastetxeetako ikasleok, 11. helburua landu dugu, Hiri eta komunitate jasangarriak hain zuen ere. Martxo eta otsaila bitartean gai honen inguruko aspektu ezberdinak lantzen ibili gara. Egindako lana eta azterketa horretako ondorioak erakustera gatoz, baita ikusitakoa hobetzeko zenbait proposamen egitera ere. Hona hemen mailaz maila egindakoa.

**2022/05/11  
Ez Ohiko Udalbatza  
Pleno Extraordinaria**

Kaixo:

2. mailako ikasleok gure herriko eraikuntza publikoetan ea ura aurrezten den aztertu dugu. Azterketa egin eta gero atera ditugun ondorioak hauek dira:

- Leku batzuetan ura aurrezteko neurriak daude, batez ere Ibarraundi museoan, baina beste eraikuntzetan ez dago ezer edota neurri oso gutxi hartu dira, kultur etxea esaterako.

Udalari proposatu nahi dioguna, hauxe da:

- Ura aurrezteko txorrotak jarri.
- Botila sartu zisternan.
- Bonba bi botoikoa ipini.
- Kartelak ipini.

Guk hartzan ditugun konpromisoak:

- Iturria denbora baino lehenago behar ez badugu, eskuekin tiratzen saiatu.
- Bakarrik erabiliko dugu beharrezkoa denean: ez dugu urarekin jolasteko.
- Botilak hustuta ditugunean bakarrik beteko ditugu.

Mila esker

Kaixo denoi;

4. mailako ikasleak dieta aberatsak duen garrantzia ikusita, herrian bertan jateko daukagun aniztasuna aztertu dugu fruta denda eta ortuak bisitatuz. Momentu honetan bertako produktuek ez digute aniztasuna eskaintzen eta gainera ez dago nahikoa herritar guzointzat, ondorioz, kanpotik ekarri beharra dago.

Egoera hau hobetzeko ondokoa eskatu nahi dizuegu:

- Ostiraletan, azokan, herriko baserritarrei aukera ematea beraien produktuak saltzeko.
- Zuhaitzak ez moztu eta lur eremu gehiago ez suntsitu bertako fruta arbolak edo zuhaitzak landatu biodibertsitateari begira.
- Jendeari ortuak jartzeko laguntza eskaini eta herritarrentzat baratze gehiago egitea.

Aldiz, gu honako hau egitera konprometitzen gara:

- Bertako produktuak erostea.
- Eskoriatzan dauden zuhaitzak eta landareak zaindu (ez apurtzen, ez hartzen...).
- Eskoriatzako baserritarrei hemengo haziak salgai jartzeko eskatzea.

Mila esker zuen arretagatik

Kaixo;

Nondik dator jaten duguna? Hori da 6. mailakook aztertu duguna. Ikerketa hau egin ahal izateko herriko hainbat komertziotara joan gara bertako produktuen jatorria jakiteko eta honako ondorioetara heldu gara:

Herrian ez dago nahiko produktu guziontzat eta kanpotik ekarri behar izaten dituzte elikagaiak honek dakaren ondorioekin; garraiatzean sortzen den kutsadura esate baterako.

Gehienetan, erosketak egiterakoan, ez dugu kontutan hartzen beraien jatorria eta ez ditugu garaian garaiko produktuak kontsumitzen urte osoan nahi ditugun produktua jatera ohitu garelako.

Batzuetan, elikagaiak urrutitik datozerako, produktuei kontserbanteak botatzen dizkiete gehiago irauteko, ondorioz batzuk usteldu egiten dira eta ezin dira aprobetxatu.

Ikusita zein garrantzitsua den bertako produktuak kontsumitzea, egoera hau hobetzeko udalari egin nahi dizkiogun proposamenak hauek dira:

- Herritarrentzat ortuak antolatzea produktuak ekoizteko.
- Baserritarrei produktuak ekoizteko animatu eta laguntzak eman.
- Baserritarren azoka egiteko toki propio bat egokitzea salmenta areagotzeko.

Gure aldetik, konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Produktuak erostean baserriko produktuei lehentasuna emango diegu.
- Erosketa xumea bada ere, herriko dendetan egingo dugu.
- Produktuen jatorria begiratu ondoren, gertuagokoak diren produktuak aukeratzen saiatuko gara.

Gure eskaerak kontutan izango dituzuelakoan, eskerrik asko.

Arratsalde on denoi;

DBH 3. mailakoak Almen inguruan dagoen biodibertsitatea aztertu dugu: zuhaitz mota desberdinak eta kopurua, zaraten aurrean eskaintzen diguten babes, bioadierazleak...

Biodibertsitatea beharrezkoa da eta zenbat eta biodibertsitate altuagoa izan gure ingurunea osasuntsuagoa izango da. Hau guztia ikusita, inguru aberatsak izateko biodibertsitateak duen garrantziaz konturatu gara eta udalari honako hau proposatzen diogu:

- Lur publikoetan fertilizante naturalak erabili (konposta, satsa).

- Espezie inbaditziaileak ez landatu udaletxeko lurretan eta daudenak kendu.
- Garbiketak bideratu pizgarriak erabiliz: deskontuak herriko dendetan).
- Herriko baserritarrei dirulaguntzak eskaini zuhaitz mota ezberdinak landatuz gero (ez pinu, eukalipto...).

Konpromisoak:

- Antolatutako auzolanetan parte hartu.
- Gauzak berrerabili eta ezin dena birziklatu.
- Inguru naturaletan gaudenean zaborrak batu.
- Inguru naturaleko izaki bizidunak bakean utzi.

Honekin gure aurtengo lana bukatzen dugu, hemendik aurrerakoa zuen esku gelditzen da.

Arratsalde on eta eskerrik asko.

## **1.- AGENDA 2030- “MUNICIPIO Y COMUNIDAD SOSTENIBLES”: PROPUESTAS DE LOS CENTROS ESCOLARES.**

El Alcalde da la bienvenida a los alumnos de los centros escolares de la localidad. Han mostrado una proyección de vídeo. Con motivo de la Agenda 2030 los alumnos leen el documento en el que presentan al Ayuntamiento de Eskoriatza una serie de propuestas. Las propuestas que hacen constan en el Anexo a la presente acta.

Terminado el video, se producen las siguientes intervenciones:

El Alcalde: indica que es un trabajo interesante y que hay cosas que ya se han realizado o están a medio hacer, por ejemplo, se están cambiando los grifos en los edificios municipales, y, luego, hay intención de seguir cambiando los de las fuentes del pueblo. A los de 4º les dice que, si algún baserritarra quiere, todavía hay sitio para poner el puesto en la feria del viernes. Para no talar árboles: se han echado los que estaban enfermos o están en peligro de caída. Programa de huertas: las tenemos para los jubilados, sobran, así que, si cualquier otro quisiera, lo tiene que pedir en el Ayuntamiento.

Estamos trabajando en la concesión de ayudas a los baserritarras, en el pueblo un joven ha empezado a trabajar de pastor con la subvención de la Diputación, el Gobierno Vasco y el Ayuntamiento. Para los de 3º de ESO: en cuanto al abono natural, cuando se convoca el concurso para el mantenimiento de parques y jardines, por ejemplo, una de las condiciones suele ser el uso de fertilizantes naturales. No se cultivan especies invasoras y es difícil eliminarlas. También se señala el programa de bonos en defensa del comercio local y que la Diputación Foral tiene en marcha un programa de ayudas a los baserritarras para plantar plantas. Señala que las aportaciones de todos han sido muy buenas y ha finalizado dando las gracias.

## **2.- APROBACION DEL PROGRAMA DE RACIONALIZACION DE LOS RECURSOS HUMANOS PARA LA ESTABILIZACIÓN DE EMPLEO TEMPORAL, DE LA MODIFICACION DE LA RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO 2022 y PERFILES LINGÜISTICOS PARA ALGUNOS DE LOS PUESTOS.**

Examinado el proyecto de PROGRAMA DE RACIONALIZACION DE LOS RECURSOS HUMANOS PARA LA ESTABILIZACION DE EMPLEO TEMPORAL DEL AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA.

Considerando que, conforme al art. 69 del texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público , aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, la planificación de los recursos humanos en las administraciones públicas tendrá como objetivo contribuir a la consecución de la eficacia en la prestación de los servicios y de la eficiencia en la utilización de los recursos económicos disponibles mediante la dimensión adecuada de sus efectivos, su mejor distribución, formación, promoción profesional y movilidad.

Considerando que el art. 69.2 permite a las administraciones públicas aprobar planes para la ordenación de sus recursos humanos, que incluyan algunas de las siguientes medidas contempladas en el mismo.

2022/05/11  
**Ez Ohiko Udalbatza**  
Pleno Pleno Extraordinaria

Considerando que el Plan de Ordenación de Recursos Humanos debe ser fruto de la negociación con la representación de las personas trabajadoras, por aplicación del art. 37.1 del texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público , aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre.

Considerando que convocada la mesa de general de negociación se ha alcanzado acuerdo con los representantes sindicales.

Considerando que, dada audiencia a todos los empleados/as afectados directamente por el Programa cuya aprobación se propone, han sido resueltas las dudas y cuestiones planteadas por los mismos.

Visto , a su vez, el informe emitido por los servicios Técnicos de Euskera de este Ayuntamiento y el informe emitido por la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco, y

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y Hacienda y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

**PRIMERO.-** Aprobar el PROGRAMA DE RACIONALIZACION DE LOS RECURSOS HUMANOS PARA LA ESTABILIZACION DE EMPLEO TEMPORAL DEL AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA-2022 que debidamente diligenciado obra en el expediente administrativo.

**SEGUNDO:** En concordancia con el Programa aprobado, modificar en los términos que consta en el ANEXO 1 la Relación de Puestos de Trabajo del Ayuntamiento de Eskoriatza para el año 2022. Dicha modificación consiste en :

1º.- Modificar la denominación de los siguientes puestos y adecuar las funciones estructurales que desempeñan en la actualidad sus ocupantes:

- El puesto “Gestor/a económico-administrativo/a del museo-Gestor/a de turismo”, pasará a denominarse “Técnico/a de desarrollo local”, cuyas funciones son las contempladas en la ficha descriptiva del Anexo II del Plan de racionalización aprobado.
- El puesto “Técnico/a de museo”, pasará a denominarse “Técnico/a de desarrollo ambiental”, cuyas funciones son las contempladas en la ficha descriptiva del Anexo II del Plan de racionalización aprobado.

2º.- Crear el puesto de TRABAJADOR/A SOCIAL 2, cuya descripción, funciones y valoración es la misma que la del puesto TRABAJADOR/A SOCIAL 1.

**TERCERO:** Aprobar conforme se indica a continuación el perfil para el puesto de nueva creación y el perfil de los dos puestos objeto de adecuación, todo ello en cumplimiento del art. 97.5 de la Ley de la Función Pública Vasca y el art. 23 del Decreto 86/1997, regulador del proceso de normalización del uso de euskera en las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

PUESTO DE TRABAJO	PERFIL LINGÜISTICO	FECHA DE PRECEPTIVIDAD
TRABAJADOR/A SOCIAL 2	3	11/05/2022
TECNICO DESARROLLO LOCAL	3	20/12/2012
TEFCNICO DE DESARROLLO AMBIENTAL	4	20/12/2012

2022/05/11  
Ez Ohiko Udalbatza  
PlenoPleno Extraordinaria

**CUARTO.-** Publicar los acuerdos en el Boletín Oficial de Gizpukoa, en el tablón de anuncios de este ayuntamiento y en su sitio web

***INTERVENCIONES HABIDAS ANTES DE LA VOTACION:***

Alcalde: es un tema que previamente había pasado por la comisión de Hacienda y Personal, con un voto en contra y el voto a favor de todos los demás concejales presentes.

Néstor Arana: nosotros votamos en contra en la comisión, pero con un análisis más profundo hemos decidido que votaremos a favor, votamos en contra porque estábamos preocupados por ese puesto de Luis Ezeiza y el museo, que está en vías de desaparecer. A la vista del número de alumnos que ese puesto trae de otras localidades al museo, y que vincula el museo con la educación, se puede decir, de alguna manera, que está dirigido a la didactificación del museo. Además, tenemos varios tesoros. Este fin de semana se ha celebrado el día del molino, existe un potencial, queremos impulsar ese puesto no sólo desde el punto de vista educativo, sino también cultural. Lo del molino tiene un significado, es un ejemplo de un uso natural de la energía. Hay un potencial y habría que trabajarla más, hay tarea. Eskoriatza es un pequeño pueblo. Estamos preocupados por ese puesto y por si se puede impulsar ese puesto con Luis Ezeiza (Educación) y cultura para hacer, entre otros, más actos como este de hoy, y acercar a la ciudadanía al pleno, y ahí nos tendríais como compañeros de viaje.

El alcalde: aquí lo que se plantean son los puestos de trabajo de los trabajadores del Ayuntamiento de Eskoriatza, y usted se refiere a un profesor que es liberado por el departamento de educación. Son dos cosas diferentes. El Departamento de Educación creó este puesto para impulsar el proyecto pedagógico del museo. Ocurre que hay también hay otro programa, la Agenda 2030, que es el que atrae a la gente, y el del museo no tanto. Es un puesto creado para dar respuesta a los centros que vienen de fuera, es importante separar los dos ámbitos. No podemos entrar en la programación y autonomía del departamento de Educación, lo único que podemos hacer es lo que hemos hecho hasta ahora, reivindicar ese puesto, pero no podemos hacer nada más. Es de agradecer la preocupación, Luis Ezeiza sabe que el puesto está a punto de desaparecer y se consiguió que fuera a jornada completa para un año y media jornada para el siguiente. No sé, te has estado refiriendo a la educación (hezkuntza) y te querías referir al idioma (hizkuntza).

Néstor Arana: sobre que son diferentes no hay ninguna duda, y agradecemos saber que vais a hacer lo posible por mantener ese puesto. Nos tendríais al lado, gracias.

El Sr. Alcalde toma la palabra para señalar que en relación a los puestos estructurales ocupados con personal eventual, se han identificado 7 plazas en Eskoriatza, de las que 2 plazas se proveerán mediante el sistema de concurso-oposición, y, otras cinco, mediante concurso. Indica que la OPE debe publicarse antes del 1 de junio. Después vendrá una 2<sup>a</sup> fase de redacción de las bases.

El Alcalde subraya que la OPE ha sido consensuado con los trabajadores y representantes de los trabajadores de los 7 puestos de trabajo.

**3.- EXPEDIENTE DE MODIFICACION DE CREDITOS Nº 14/2022**

2022/05/11  
Ez Ohiko Udalbatza  
Pleno Pleno Extraordinaria

Dada lectura del expediente de Modificación de Créditos Nº 14, mediante Créditos Adicionales que afecta al Presupuesto de este **AYUNTAMIENTO**.

Se da cuenta del informe emitido por la secretaria-interventora quien manifiesta que dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos y trámites establecidos en el artículo 34 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Guipúzcoa.

Visto el informe emitido desde secretaría intervención, se somete a votación la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y Hacienda y con el voto a favor de todos corporativos presentes , el Pleno ACUERDA:

**Primero.-** Aprobar el expediente de Modificación de Créditos mediante Créditos Adicionales, nº 14 que afecta al Presupuesto de este **AYUNTAMIENTO** del corriente ejercicio, conforme a la propuesta formulada y siguiente resumen por Capítulos:

Gastuen partida	II. Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0600.227.337.60.20 2022	GAZTELEKUAREN KONTRATA	53.527,47	3.500,00	57.027,47
1 0600.227.337.20.21 2022	LUDOTEKA-UDALEKU IREKIAK ZERBITZUA	74.836,81	3.700,00	78.536,81
1 0100.211.933.00.01 2022	MANTENIMENDUA:ETXEAK- LOKALAK	8.000,00	7.500,00	15.500,00
1 0400.481.341.90.01 2022	DIRU LAGUNTZA:ESKO MOTOR ELKARTEA	0,00	2.000,00	2.000,00
<b>GUZTIRA</b>		136.364,28	16.700,00	153.064,28

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0200.870.000.00.01 2022	DIRUZAINTZAKO GERAKINA:GASTU OROKORRETARAKO	16.700,00

2022/05/11  
**Ez Ohiko Udalbatza**  
 Pleno Extraordinaria

	<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>	<b>16.700,00</b>

#### **KODEEN AZALPENA**

**Segundo.-** Que se someta a información pública por el plazo de quince días a efectos de reclamaciones. De no presentarse reclamaciones este acuerdo devendrá definitivo, debiendo darse a este expediente los restantes trámites iguales a los establecidos para la aprobación del Presupuesto General.

**4.- INFORME TRIMESTRAL SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LOS PLAZOS PREVISTOS PARA EL PAGO DE LAS OBLIGACIONES DE ESTE AYUNTAMIENTO ( art. 4 de la Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la Ley 3/2004, de 29 de noviembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales.**

En cumplimiento con lo dispuesto en el artículo 4 y 5 de la Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales, se da cuenta a la Corporación en Pleno del informe trimestral emitido desde tesorería en relación al Ayuntamiento sobre el cumplimiento de los plazos para el pago de las obligaciones adquiridas por este ayuntamiento correspondiente al primer trimestre de 2022.

El Pleno, con la asistencia de 8 de los 11 concejales que legalmente lo componen, da por recibida dicha información.

**5.- MODIFICACION 3/2022 DEL PLAN ESTRATEGICO DE SUBVENCIONES**

El Ayuntamiento en Pleno, en sesión celebrada el 17 de diciembre de 2019, adoptó el acuerdo de aprobar el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023.

Aprobado, desde el área de deportes se ve la necesidad de modificar las previsiones contempladas en su Anexo-2022, con el fin de ampliar en un programa de subvenciones más la línea estratégica de dicha área

Dicha modificación consiste en:

A.- CREAR EN LA “LÍNEA ESTRATÉGICA Nº 2: PROMOCIÓN DEL DEPORTE ” el PROGRAMA: “ESKORIATZAKO I. RALLYSPRINTA” al objeto de impulsar el deporte en la población, acercando con este evento diferentes tipos de deporte a la población.

**2022/05/11  
Ez Ohiko Udalbatza  
PlenoPleno Extraordinaria**

Por lo anteriormente mencionado, de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Cultura y Deportes y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

**PRIMERO.-** CREAR EN LA “LÍNEA ESTRATÉGICA Nº 2 : PROMOCION DEL DEPORTE ” el PROGRAMA “ESKORIATZAKO I. RALLYSPINTA”

- DESTINATARIOS: ESKOMOTOR ELKARTEA
- OBJETO: 1º RALLYSPINT DE ESKORIATZA
- EFECTOS PRETENDIDOS: promover la actividad que acerca al pueblo diferentes tipos de deporte.
- MODALIDAD DE LA CONCESIÓN: Directa
- COSTES PREVISIBLES 2022: 2.000- €
- FINANCIACION: *expediente de modificación de crédito Nº 14/2022 en trámite: 0400.481.341.90.01*

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:40 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria Accidental doy fe.**

2022/05/11  
**Ez Ohiko Udalbatza**  
Pleno Extraordinaria

## ERANSKINA

ESKORIATZAKO UDALARI

PROPOSAMENAK



2021-2022 ikasturtea

Hiri eta komunitate jasangarriak

Arratsalde on denoi:

Arratsalde on denoi:

Aurten, Eskolako Agenda 2030 programaren baitan, Eskoriatzako ikastetxeetako ikasleok, 11. helburua landu dugu, Hiri eta komunitate jasangarriak hain zuen ere. Martxo eta otsaila bitartean gai honen inguruko aspektu ezberdinak lantzen ibili gara. Egindako lana

2022/05/11  
**Ez Ohiko Udalbatza**  
Pleno Extraordinaria

eta azterketa horretako ondorioak erakustera gatoz, baita ikusitakoa hobetzeko zenbait proposamen egitera ere. Hona hemen mailaz maila egindakoa.

Kaixo:

2. mailako ikasleok gure herriko eraikuntza publikoetan ea ura aurrezten den aztertu dugu. Azterketa egin eta gero atera ditugun ondorioak hauek dira:

- Leku batzueta ura aurreztek neurriak daude, batez ere Ibarraundi museoan, baina beste eraikuntzetan ez dago ezer edota neurri oso gutxi hartu dira, kultur etxea esaterako.

Udalari proposatu nahi dioguna, hauxe da:

- Ura aurreztek txorrotak jarri.
- Botila sartu zisternan.
- Bonba bi botoikoa ipini.
- Kartelak ipini.

Guk hartzen ditugun konpromisoak:

- Iturria denbora baino lehenago behar ez badugu, eskuekin tiratzen saiatu.
- Bakarrik erabiliko dugu beharrezkoa denean: ez dugu urarekin jolasteko.
- Botilak hustuta ditugunean bakarrik beteko ditugu.

Mila esker

Kaixo denoi;

4. mailako ikasleak dieta aberatsak duen garrantzia ikusita, herrian bertan jateko daukagun aniztasuna aztertu dugu fruta denda eta ortuak bisitatuz. Momentu honetan bertako produktuek ez digute aniztasuna eskaintzen eta gainera ez dago nahikoa herritar guztiotzat, ondorioz, kanpotik ekarri beharra dago.

Egoera hau hobetzeko ondokoa eskatu nahi dizuegu:

- Ostiraletan, azokan, herriko baserritarrei aukera ematea beraien produktuak saltzeko.

- Zuhaitzak ez moztu eta lur eremu gehiago ez suntsitu bertako fruta arbolak edo zuhaitzak landatu biodibertsitateari begira.
  - Jendeari ortuak jartzeko laguntena eskaini eta herritarrentzat baratze gehiago egitea.
- Aldiz, gu honako hau egitera konprometitzen gara:
- Bertako produktuak erostea.
  - Eskoriatzan dauden zuhaitzak eta landareak zaindu (ez apurtzen, ez hartzen...).
  - Eskoriatzako baserritarrei hemengo haziak salgai jartzeko eskatzea.

Mila esker zuen arretagatik

Kaixo;

Nondik dator jaten duguna? Hori da 6. mailakook aztertu duguna. Ikerketa hau egin ahal izateko herriko hainbat komertziotara joan gara bertako produktuen jatorria jakiteko eta honako ondorioetara heldu gara:

Herrian ez dago nahiko produktu guziontzat eta kanpotik ekarri behar izaten dituzte elikagaiak honek dakaren ondorioekin; garraiatzean sortzen den kutsadura esate baterako.

Gehienetan, erosketak egiterakoan, ez dugu kontutan hartzen beraien jatorria eta ez ditugu garaian garaiko produktuak kontsumitzen urte osoan nahi ditugun produktua jatera ohitu garelako.

Batzuetan, elikagaiak urrutitik datozerako, produktuei kontserbanteak botatzen dizkiete gehiago irauteko, ondorioz batzuk usteldu egiten dira eta ezin dira aprobetxatu.

Ikusita zein garrantzitsua den bertako produktuak kontsumitzea, egoera hau hobetzeko udalari egin nahi dizkiogun proposamenak hauek dira:

- Herritarrentzat ortuak antolatzea produktuak ekoizteko.
- Baserritarrei produktuak ekoizteko animatu eta laguntzak eman.
- Baserritarren azoka egiteko toki propio bat egokitzea salmenta areagotzeko.

Gure aldetik, konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Produktuak erostean baserriko produktuei lehentasuna emango diegu.
- Erosketa xumea bada ere, herriko dendetan egingo dugu.
- Produktuen jatorria begiratu ondoren, gertuagokoak diren produktuak aukeratzen saiatuko gara.

Gure eskaerak kontutan izango dituzuelakoan, eskerrik asko.

Arratsalde on denoi;

DBH 3. mailakoak Almen inguruan dagoen biodibertsitatea aztertu dugu: zuhaitz mota desberdinak eta kopurua, zaraten aurrean eskaintzen diguten babes, bioadierazleak...

Biodibertsitatea beharrezkoa da eta zenbat eta biodibertsitate altuagoa izan gure ingurunea osasuntsuagoa izango da. Hau guztia ikusita, inguru aberatsak izateko biodibertsitateak duen garrantziaz konturatu gara eta udalari honako hau proposatzen diogu:

- Lur publikoetan fertilizante naturalak erabili (konposta, satsa).
- Espezie inbaditzaireak ez landatu udaletxeko lurretan eta daudenak kendu.
- Garbiketak bideratu pizgarriak erabiliz: deskontuak herriko dendetan).
- Herriko baserritarrei dirulaguntzak eskaini zuhaitz mota ezberdinak landatz geru (ez pinu, eukalipto...).

Konpromisoak:

- Antolatutako auzolanetan parte hartu.
- Gauzak berrerabili eta ezin dena birziklatu.
- Inguru naturaletan gaudenean zaborrak batu.
- Inguru naturaleko izaki bizidunak bakean utzi.

Honekin gure aurtengo lana bukatzen dugu, hemendik aurrerakoa zuen esku gelditzen da.

Arratsalde on eta eskerrik asko.